

## ALTXORRA!!!



Aizue, entzun al duzue  
Kolonbiako uretan  
hondoratutako espainiar  
galeoiaren albistea?  
Garraiatzen omen zuen  
altxorra beretzat  
aldarrikatu du Espainiako  
Gobernuak. Eta hori,  
zergatik? Konkistatzaileek  
Gaztelatik Amerikara

eramandako altxorren bat izango al zen, esker txarreko indigena primitibo haiek onartu nahi izan ez zutena, eta ondorioz, altxorra Gaztelara berriro eramatea beste erremediorik izan ez zutena, asmoa burutu ezinez geldituz, ezen, galeoia hondora joan baitzen (beharbada, gehiegizko zamagatik)? A, horrengatik baldin bazen, lehenago esatea zeukaten!

Tira, espero dut kolonbiarrek koka-kolen txapaz betetako altxorra itzultzea lotsagabeko horiei.

Ondo izan!